

K...eta
Kitto!

2016-VII-15 981 zkia.



Lasto jokoaren erregea

soilik zuretzat

%30^{-eko}
deskontua

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

www.multioplicasgipuzkoa.com **eguzkitako betaurreko GUZTIETAN**

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabil.

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan



IRAZABAL

clínica dental

Abuztuan irekita



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f **Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **t** **Twitter**en: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Urtzi Uriarte

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



...eta kitto!-rekin Sanferminetan

*Gure bazkide fidelenetakoen kuadrila
Iruñean izan da aurten ere, astekaria
eskuan zutela, udaletxearen aurrean
ateratako irudiak erakusten digun bezala.
Badira hainbat urte, kale egin barik,
doaneko publikitatea egiten digutela.
Datorren urtean 20 urte beteko dira
Iruñeara joaten hasi zirela. Segi holan!*

– erredakzioaren oharra –

Datorren barixakuan, hilaren 22an,
ikasturteko azken alea kaleratuko du-
gu. Kontutan hartu, beraz, zorion-agu-
rrak eta bestelako edozein informazio
kaleratu nahi baduzue.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAPIKUAK SARTAIÑARI, IPURBALTZ.- “Zozoak beleari, ipurbeltz” errefrau ezagunaren aldaera.

LAPURRETAN EGIN.- Lapurto, ostu. “Atzera be lapurretan egin dabe beheko dendan”.

LAREMIN.- Larumin, gibebeko gaitza. Gaztelera “*ictericia*”. “Laremiñak hartu eban, eta hori-hori egon zan luzero”.

astean esanak

“Gehiegitan lotzen zaio zintzotasuna
erlijioari, `beste munduko` sariari eta
abar. Hori da gezur borobila!
Zintzotasuna arrakastarako bidea da,
eta horrela frogatu zen lehen aldiz orain
dela 50.000 urte, `trukaketa orokorra`
asmatu zenean eta eredu hori Eurasia
osoan zabaldu zenean. Zintzo izatea
-ez txintxo izatea-, hitzari eustea...
horrelako balioak praktikatzen dituzten
nazioak dira aurreratuenak eta
aberatsenak: eskandinaviarrak,
esaterako. Aurre-historiako irakasgaia
gure gizartean ere aplikagarria da”

(J. INAZIO HARTSUAGA, ANTROPOLOGOA)

“Tourrean orain arte jokatu diren
mendiko etapak lotsatzeko modukoak
izan dira. Ez dago gerra emango
duenik, Bahamontes falta zaie: inor ez
da gai nik bezala erasotzeko. Doping-a
amaitu dela? Ez dut sinesten. Erlojuak
kontra lehiatzera irten duten guztiak
pozoitu dira; bestela, ezingo zuketen
halako garapenik mugitu. Ni inoiz ezin
izan naiz 54/14 baino gehiagorekin ibili
lauan. Begira Poulidor, zelan dagoen,
80 urterekin butano-bonbona dirudi!
Ni, 88rekin, ondo zaindutako zuhaitzak
moduan nago. Lorategian jarduten dut
bazkaltzeko ordura arte, eta gero
Tourra ikustera, asper-asper egiteko!”

(FEDERICO M. BAHAMONTES, TXIRRINDULARI-OHIA)

“Eurobarometroak erakutsi duenez,
espainiarren %17k bakarrik uste du
`bere bizitza zelakoa izango den bere
ekintzek erabakiko dutela, ez besteek
edo zorteak`. Ekintzaile izateko
beharrezkoa den jarrera hori %33k du
Frantzia, %50k Erresuma Batuan eta
%72 Estatu Batuetan. 1992an Israelgo
gubernuak arrisku-kapitalaren fondo
publiko-pribatua sortu zuen Berlingo
harresia erori ondoren hara joango
ziren 800.000 etorkinentzako postuak
sortzeko. Gaur egun, Euskadin oinarri
teknologikoko enpresa bat sortzeko
inbertitzen den dolar batengatik,
Israelen 70 dolar inbertitzen dute”

(GURUTZ LINAZASORO, SENDAGILEA)



ASIER EZENARRO

Urrezko ezkontza

Mendeetan zehar hindu batentzat ezkontza izan da bere bizitzaren gertakari garrantzitsuena. Historikoki arraroa izan da Indian "maitasunezko" ezkontza. Mutilak eta neskek, ia umeak zirenean, lotzen zituzten familiek. Senideek zuten ahotsa eta erabakia eta emakumea senarraren familiaren kide bat izatera pasatzen zan (lehenengo urteetan amaginarreberen eta bere ezkonarreben menpe egoten zen). Pixkanaka gauzak aldatzen ari dira nazio horretan, baina baserri giroan eta herri txikietan horrela da gaur egun ere. Aldaketa ugari gertatzen ari dira Indian eta, kapitalismo basatiaren markoan, klase sozial dirudunak erakusnahi eta handikeriaren lagunak dira. Horren adibidea izan da ekainean Bilbon izandakoa. Shamik eta Toral Erresuma Batuan bizi den bikoteak Bizkaia aukeratu zuten bere ezkontzaren handiospetsu jaja egiteko: 400 gonbidatu eta 700.000 euroko diru galera, indiar sukaldari taldea Londresetik etorrita, Guggenheim museoa harrera, etabar. Hori txiki geratu zen Lakshmi Mittal, Arcelor Mittaleko presidentearen alabaren ezkontzaren ondoan. 2004an izan zen, Parisen, 60 milioi euroko gastua, Kylie Minogue-ren ordu erdiko kontzertu eta guzti. Ez dakigu nola pasatu zuten gonbidatuek. Seguruenik ez zuten baloratu bazkaria, agian nekatuta zeuden hango janariak eta edariak dastatzen. Ez dakigu euren lagunekin ondo pasatu zuten ala ez. Agian ez ziren lagunak. Finantza-eliteek ekitaldi horiek baliatzen dituzte harreman sozialetan sakontzeko euren artean. Denetarik egoten da aberatseen ezkontzetan. ¿Maitasuna ere bai?

Behin-behiñeko aparkalekua Arraguetan

Arragueta kaleko 21. zenbakixa eraitsi eta gero libre geratu dan tokirako hirigintza-garapena zihaztu bittartian, orubea behin-behiñeko aparkaleku publiko moduan erabilli ahal izateko preparatzeko asmua dala udalak eta, horretarako aukeria dagan ala ez jakittek, orube horren jabeekin billeria egin dau alkatiak. Eurekin berba egin eta proposamena aurkeztu detseñian, lehelengotik aldeko jarrera erakutsi dabela diño alkatiak: "Oso jarrera ona izan dabe hasieratik, dana erraztasunak izan dira eta lurraren jabiak ondo hartu dabe orubea modu probisionalian zerbitzu publikua eskintzeko egin jakuen proposamena. Hori dala eta udalak eskerak emon nahi detse".

Alde bixen arteko hitzarmena ez dabe oindiok itxi, baiña udalaren asmuak aurrera egiñez gero, tokixa aparkaleku moduan erabilli ahal izateko eta sarrera-urteeriak jartzeko biharrak udalak bere gain hartuko leukez. Edozelan be, eta oin arte berba egindakuekin hitzarmena laster siñatze-ko moduan egongo dira- la pentsatzen dabe.



asteko
461
datua

paziente daude Mendaroko Ospitalian operatzeko zain. Bataz beste, 43 egun itxaroten dabe operatu arte. Kontsultaren zain, bestalde, 2.298 lagun dagoz Debabarrenian, eta bederatzigun egun itxaroten dabe bataz beste. Eta probak egiteko 350 dagoz, bataz beste 5/6 egun itxarongo dabenak. Operaziñuetarako itxarote-tartia jaitsi dan moduan, bestietan igo egin da pixka bat.

Hasi dira ludotekia eraberritzeko biharrak

Aste honetan hasi dittue Jazinto Olabeko ludotekia eraberritzeko biharrak. Uda-

lak El Corte Inglés enpresakueri esleitu detsaz biharrak, 133.311 euruan, eta zortzi as-

tetan amaittu biharko dittue, ikasturte barrixa abiatzerako ludoteka zerbitzua eskindu ahal izateko. Hasi dittuen biharrerri esker, bestiak beste, lokalaren baldintza termikuak hobetu nahi dittue eta, horretarako, isolatzaille termiko bat sartuko dabe fatxada barruan. Horrekin batera, leiho zaharrak kendu eta oinguk baiño kalidade eta kristal hobiak dittuen beste barri batzuk ipiñiko dittue. Lokalera sartzia errazteko asmuarekin, bestalde, oingo sarreran dagan koska kenduko dabe eta ur-sarea, komunak, saneamendua eta instalaziño elektrikua be hobetuko dittue bide batez.



Zortzi astetan amaittu biharko dittue lanok. **Ana Aizpurua**

37 ekimen T. Etxebarria Sarixetarako lehian

Datorren astian hautatuko ditu Toribio Etxebarria Sarixen epaimahaixak 26. ediziñorako finalistak, deialdira aurkeztu dituen 37 hautagaitzen arteak. Eibarko udalak eta BIC Gipuzkoak sustatzen dituen sarixekin ekintzaillien biharra aitortu nahi dabe, "ekintzailetza barriztatzailia bultzatzeko eta enpresa-proiektu barrixak sortzeko asmuarekin". Urtero bezala, kategorixa bittan banatuko ditue sarixak: batetik "Ideiak/Proiektuak" ataleko sarixak emongo dira eta, bestetik, "Enpresa Barrixa" atalekuak. Hórrretako bakotxian 10.500 euro emongo ditue dirutan eta, horrekin batera, proiekturako laguntasuna, prestakuntza eta aholkularitza jasotzeko aukeria be emongo detse irabazlieri. Aurtengo sarixak banatzeko ekitaldixa, bestalde, Tekniker Fundaziñuaren egoitzan egingo dabe, uztaillaren 28xan, 11:00etan hasitta.



Toribio Etxebarria
Sarixak mende
laurena laga dau
atzian sortu zala.

Hazilan: bigarren ediziñua abian

Gaztiak biharrian hastia errazteko asmuarekin sortu zan Hazilan programaren bigarren ediziñua abiatu dau Debegesak, lehelen guak izan daben arrakastarekin animauta. Izan be, programako arduradunak azaldu dabenez, "lehen ediziñuan parte hartu daben 13 lagunak lan-kontratua edo lan-praktikak lortu ditue". Hori dala-ta, gazte kualifikatueri biharra topatzen laguntzeko Hazilan programaren bigarren ediziñua iraillian ipiñiko dabe martxan eta parte hartzeko interesa daken gaztiak www.debegesa.eus webguniaren bittartez

emon leikie izena. Hazilan proiektua goi maillako ikasketak eukittta biharra topatu ezinda dabizen 20 eta 35 urte bittarteko gaztiendako da. Debegesatik azaldu dabenez, "izena emoten daben hautagaixen curriculumak aztertu eta eurekin alkarrizketak egin eta gero, parte hartuko dabenak aukeratuko ditugu. Hórrék euren gaitasun personalak zein profesionalak hobetzeko trebakuntza jasoko dabe lehengo eta, ondoren, enpreetan praktikak egitteko edo proiekturen bat garatzeko aukeria euki dabe".



Lehen promozioñoko 13 gaztiak enpreetan praktikak egitten dihardute.

autuan

BILDUREN BATZAR IREKIXA

Eibarko EH Bilduko udal taldiak deittuta, datorren asteko eguaztenian batzar irekixa egingo da Portalean, 19:00etan. Aurreratu dabenez, hónek dira batzarrian landuko dituen gaixak: Espaiñiako hauteskundien inguruko baloraziñua, hauteskunde autonomikueri begira hautagaixak aukeratzeko proposamena eta Eibarrekin lotutako gaixak. Diñuenez, batzarra edozeiñendako zabalik egingo dabe eta herrittarrak parte hartzera eta ekarpenak egittera animau nahi ditue.

IPURUAKO JUBILAUERI OMENALDIXA

Aurten 85 urte beteko dituen bazkidieri omenaldixa egin nahi detse Ipuruako jubilaue txekueak. Ekitaldixa eta horren inguruko bazkarixa urrian egitteko asmua dake eta, horregaittik, aurten edade horretara aillegauko diran bazkidieri buleguan horren barri emoteko eskatu dabe, omendu ahal izateko.



Esperientzia Eskolarako izen-emotia

Datorren ikasturtian Debabarreneko Esperientzia Eskolan parte hartu nahi dabenendako izen-emotia zabalik dago. Matrikuliak eta Ikasten alkartian izena emotiak 235 euro balixo dau eta interesa dakenak urriaren 20ra arte eukiko dabe horretarako aukeria. Klasiak urriaren 25ian hasi eta 2017ko maiatzaren 25era arte izango dira, astian hiru egunetan (martitzen eta eguaztenetan 09:30xetatik 12:30xetara Untzagako jubilaue txian eta egunetan, barriz, 10:00etatik 12:00xetara Armerixa Eskolan). Informaziño gehixago eskatzeko edo izena emoteko 695 78 89 36 telefono zenbakira deittu leike (Eva Perez de Albeniz) edo, bestela, Debabarreneko udaletxiatara jo leike.

Eguaztenian zabalduko dabe merkealdixen azokia

Datorren astian "Factoring" udako merkealdixen azoka berezixa hartuko dau Toribio Etxebarria kaliak, eguaztenetik barixakura bittartian. Eibar Merkataritza Gune Irekixaren ekimenez azken hamar urtiotan egin dan ferixiak, betiko martxan, herriko hainbat dendetan salgai egoten diran era guztietako produktuak merke-merke eskinduko ditte: erropak, oiñetakuak, kirola egitteko materixala, parfarmaziako produktuak, estetikakuak, etxerako apaingarririk... Hiru egunetan goizeko 10:00etatik 20:00etara zabalduko dabe azokia eta 25 dendak hartuko dabe parte, kalian postua ipiñitta. Horrekin batera, Igmar Optikakuak be

eskintza berezixak egingo ditte baiña dendan bertan. Eta nahi dabenak Eibar foball taldiaren ekipaziño barrixa erosteko aukeria be eukiko dau, Askasibar kirol dendakuen aldamenian bereziki horretarako ipiñiko daben postuan. Bestalde, ...eta kitto! Euskara Elkarteak "Euskeraz Primeran!" programari lotutako hainbat jarduera antolatu ditte azokaren harira, euskeriaren erabilleria areagotzeko asmuarekin: nahi dabenak erretratua egitteko "photocalla" ipiñiko dabe, jendiari euskeriaren aldeko mezua idazteko aukeria emongo detse, insigniak oparitu eta 100 euroko erosketa-txartela zozketatuko dabe.



Eguaztenetik barixakura zabalduko dabe azokia 10:00etatik 20:00etara.
Silbia



Basarrietako artillien bilketia

Martitzenian bilduko dabe Eibar eta inguruko basarrietan botatzeko euki leikien artillia. Interesa dakanak bezperan (astelehenian) eruan biharko dau artillia bilduko daben tokira, Eibarren Azitaingo poligonora, han dagan Garbiguniaren sarrerara. Gipuzkoako Landa Garapen Elkartiak 2000. urtian ekin zetsen holako bilketa berezixeri, basarri inguruan sortzen diran plastiko mota batzuk biltzeko zerbitzua martxan ipiñitta, hórrek eragiten daben kutsadura eragotzeko asmuarekin eta asmo berberarekin ekin zetsen iaz artille-bilketiari. Debarrenian Debemen alkartiak dauka horrelako bilketa zerbitzu berezixen inguruko arduria.

Arbola jausi zan Matsarixan

Eguazten goizian zuhaitz haundi bat jausi zan Matsarixan, azpitan aparkauta eguan kamioi baten gainian. Zorionez, jausitako arbolak ez eban iñor azpitan harrapatu eta kamioiari eragindako kaltiak be nahiko ariñak izan ziran. Udaltzaiñak azaldutakuaren arabera, erori zan arbolaren enborra ustelduta eguan eta, hórrek eraginda, berez jausi zan.



"Tú al Norte y Yo al Sur" saiorako lehiakide billa



Reyes Pradosek aurkezten daben "Tú al Norte y Yo al Sur" saiuk lehen denboraldixan lortu eban arrakasta ikusitta, bigarren ediziñua prepatzen dihardue eta lehiakide billa dabiz: zihetz esateko, sei euskaldun nahi ditte, uda honetan 10 egunerako Andaluziara juateko. Aurreko barixakuan lehiakide euskaldunak aukeratzeko castinga egin eben EITB-ren Donostiako egoitzan, baiña par-

te hartzeko interesa izanez gero, eskaeria eta bideua mezu bidez bidaltzeko aukeria be badago, 679400100 telefono zenbakira deittuta edo WhatsApp-a erabillitta mezua bialduta edo tualnorteyoalsur@eitb.eus-era idatzitta. Lehen ediziñuan egindakuen bidetik, oinguan be euskaldunen eta andaluziarren arteko kultur talkaz umorez jardungo dabela aurreratu dabe saioko arduradunak.

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ c.a.

Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad
iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza



Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Antena instalazioak
TDT / Satelitea

Informatika Zerbitzua
Sareak / Antiburusa
Sistema Operatiboa

Miguel Angel Garcia
Mugikorra: 609 250 853
garciamiguel@movistar.es

THELECE

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

Ego Gain, 2 - Bac

trinmer

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tf. 943 80 12 30

AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

AROTZAK

Iparragirre Anaiak

SUKALDE ALTZARIAK

*
AROTZEGIA

- APALATEGI Auzoa -
Tel.: 943 20 29 27 / 943 12 01 92 Mobila: 657 79 56 78

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

ulmar
S.L.

metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com Barrena, 21-1.F

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com **ERAKUSKETA**

% eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com



GORKA CASTRILLO,
politologo eta argazkilarixa:

“Argazkixekin aitxitxa-amama hartu zittuan herrixa ezagutzen hasi naiz”

Antziña eta oraiña argazkixetan batzeko asmuarekin, Ego Ibarra batzordiarendako “Eibar erretrofotografiatu, 1950-1970” proiektuan biharrian dihardu Gorka Castrillo eibartarrak. Horretarako darabilen teknikiak, erretrofotografia izenekoak, iraganian etaratako argazkixak biltzia ezeze, hórrek egin ziran tokixetara bueltatzia eta atzera be erretratatzia eskatzen dau, baiña gaztiak egingo daben biharrari esker, argazkirik argazki gure herrixa zelan kanbixau dan ikusteko aukeria eukiko dogu. Gai eta gauza diferentiak erakusten dittuen 350 argazki landuko dittu, argazki bata bestiaren gaiñian jarritta, geruzaz geruza urte garrantzitsu hórretako historia josten juateko.



1949ko abuztuaren 1a. Franco Eibarren. Argazkia: Indalecio Ojanguren. Erretrofotografia: Gorka Castrillo

- Zelan ekin detsazu horrelako biharrari?

2013an hasi nintzan erretrofotografia teknikarekin biharrian, Bartzelonan egin eben “Refotografiar Barcelona amb Mark Klett” izeneko proiektua ezagutu eta gero. Neure famelixako argazkixak berfotografiatzen hasi nintzan eta, horretarako, argazkixak egin ziran tokixetara bueltau nintzan. Batzuk Eibarren egindakak ziran eta beste batzuk, barriz, gurasuak 80ko hamarkadan zihar egindako biajietan etaratakak. Hori egitten mordua ikasi neban eta, horregaittik, ideia horreri helduta argazkilaritza proiektu bateri ekiteko potentzuala bae-guala pentsatzen hasi nintzan.

- Zeri esaten jako “erretrofotografia”?

Argazki bat toki berian, baiña momento edo sasoi diferentian egittia, horretan datza erretrofotografia teknikia. Holan esanda ideia sinplia dala emoten dau, baiña argazki originalak berregit-teko gauza mordua izan bihar dira kontuan: zelako eguraldixa eguan egin ziranian, eguneko zein momentutan egin ziran, perspektibia oindiok existitzen dan ala ez... ezaugarri horrek

guztiak argazkixak berregit-teko prozesu osuari eragiten detse.

- Eta zelan lortzen da sasoi bi-ttan hartutako irudixak argazki bakar batian uztartzia? Zelako prozesua izaten da?

Lehelengo eta behin argazkixak aukeratu bihar dira. Oin arte Gipuzkoako Artxibuak eta Eibarko Udal Artxibuak dittuen argazkixekin dihardut biharrian, hau da, Indalecio Ojanguren, Castrillo-Ortuoste edota Plazaolaren argazkixekin, baiña hortik kanpora be, Eibar foball taldiak dittuan argazkixekin edota Eibarko famelixak lagatakuekin be badihardut. Hortik aurrerakua, garai bixetako irudixak argazki bakarrian uztartzeko prozesua luzia ari da izaten. Beste ezer baiño lehen argazkixa nun egin zan, tokixa identifikau bihar da. Horretarako, erreferentzi modura erabilli leikiazen eraikin edo bestelako elementorik agertzen dan ala ez begiratzen ibiltzen naiz, gero atzera be hara juan eta argazkixa errepi-katzeko edo berfotografiatzeko. Erretratuan erraz identifikatzen diran erreferentziak egotiak hau asko errazten dau, baiña horrelakorik egon ezian denpora gehixago erabilli bihar izaten dot argazkixa errepi-katzeko.

- Eta tokixa identifikauta da-kazunian, zein da hurrengo pausua?

Sasoi bixen artian zelako interakziñua egotia nahi doten imajinatzan hasten naiz. Normalian kaleko elementuekin jokatzia gustatzen jata. Hau da, jatorrizko argazkixan autoak agertzen badira, gaur egungo argazkixan be autoak etarako dittut. Edo jatorrizkuan baten bat kalia ziherkatzan badoia, gaur egungo argazkixan be baten bat etarako dot oin dala 50 urteko lagun horrekin batera ziherkatzeko, adibidez. Horrelako joko bisualak gustatzen jataz eta, gaiñera, erretrofotografiaren efektua areagotzen dabe. Tokixa identifikauta eta argazkixa berreginda dittudanian, orduan ordenadorera jotzen dot, egindako lan guztia Photoshopen editatzeko. Photoshopek izugarrizko aukerak eskintzen dittu, baiña edozelan be nahixago izaten dot argazkixari ahalik eta gehixen jarraitzia, errealean mantentzia. Programia erabillitta, azal ezberdiñetan editatzen dittut argazki bixak eta holan lortzen dot argazki berian bi azal ezberdiñak bat eginda agertzia.


- Proiekturako aukeratu dittuzuen urtietan Eibarren aldaketa haundixak gertatu ziran, ezta?

Ikerketa proiektu honek 1950. eta 1970. urtien arteko Eibarrera bueltatzeko eta bisitatzeko bidia zabalduko dau, moduren batian azaltzeko. Eta fetxia ez da kasualidadez, beste barik aukeratu: hórretan hamarkadetan alda-

keta sakonak izan zittuan herriak, gerra osteko berreraikitze-prozesua amaittu zan, aldaketa ekonomiko-industrialak millaka lagun erakarri zittuan gurera 1950etik 1970era bittartian eta, ondoren, gainbeheria etorri zan, tailar haundixak Eibartik alde egin ebenian. Proiektua gure herrihan garrantzi haundixa euki eban sasoi bateri omenaldi modokua da. Bestalde, interes historikuaz gain, sasoi horren inguruko interes personala be banekan. Nere aitxita-amamak orduan sasoi, 50eko hamarkadaren hasieran etorri ziran Eibarrera industrihan jarduteko. Korrobatik eta Salamancatik etorri ziran eta etxian garai hartako istorixo asko entzun dittut, adibidez Calbeton kalian gertatu zan autobus istripuari buruzkua. Beraz, proiektu honeri esker eureri harrera egin zetsen herriha eza gutzen hasi naiz.

- Eta oin arte egin dozun biharrekin zelako sensaziñua dakazu? Nun edo zertan ikusi dozu aldaketa gehixen?

Ixa urtebete daroiat proiektu honetan biharrian eta Eibarri buruz ezagutzen ez nittuan gauza asko daguazela konturatu naiz, neretako ezezagunak ziran toki eta istorixo asko. Gaztia naizenez, bakarrik 90eko hamarkadatik aurrerako herriha ezagutu dot eta, honetan hasi arte, geure herriha oin dala 50 urte zelakua zan sekula ikusi barik neguan. Horregaittik edade guztietako eibartarri interesauko jakuen lana izango dala pentsatzen dot, na-



1957. Calbeton kalian gertatutako istripua. Argazkia: Eli Lakuesta. Erretrofotografia: Gorka Castrillo.



1966. José Antonio Baqué futbolari eibartarra. Argazkia: SD Eibar Futbol Taldea. Erretrofotografia: Gorka Castrillo.

gusixeneri eurak jaixo ziraneko herriha atzera be bisitatzeko aukeria izango dabelako eta gaztieri, barriz, gaur egungo herrihan azal azpizan daguazan kontu eta istorixuak desestaltzeko bidia emongo deskulako.

- Materixal guztia prest daganian zer egitteko asmua dakazue?

Materixala 2017. urtiaren hasierarako egongo da prest eta, hortik aurrera, Ego Ibarra batzordiak kudeatuko dau egindako guztia. Momentuz, 2017xan Eibarko kalietan erakusketak ipintzeko asmua dago, hori ikusteko irrikitan nago, baiña hortik aurrerakuak ziheztu barik dagoz oindiok.


- Proiektua argazkilaritzari lotutakua izanda be, Zientzia Politikuak ikasi dittuzu unibersidadian...

Argazkilaritza neure zaletasun nagusixa da, 14 urte nittuala arrebaren kamararekin argazki

sinpliak egitten hasi nintzan eta, sosiguz-sosiguz, argazkilaritza teknikak ikasteko eta ediziño digitalian trebatzeko ikastaruak egitten jua nintzan, modu profesionalian hartzen hasi nintzala sentitu arte. Edozelan be, ez dot sekula sentidu ikasi dotena eta nere zaletasuna inkonpatiblik diranik. Argazkilaritza errealidade politikuak analizatzeko primera-ko tresna da eta gauza bixak egitteko gauza naizelako suerte haundixa dakatela pentsatzen dot. Horregaittik, galdetzen destenian, politologua eta argazkilaria, gauza bixak naizela esaten dot harro, bixak ogibide polittak dira eta.

- Eta zaletasuna famelixatik dattorkizu ala abizenarena kasualidadia baiño ez da?

Eibarren Castrillo abizena argazkilarifamelixari esker oso ezaguna izanda be, neri San Andres gozotegiko Miguel Castrillo dattorkit.



1966. Eibarko emakume talde bat. Argazkia: SD Eibar Futbol Taldea. Erretrofotografia: Gorka Castrillo.

Gaur egun Eibarko Markeskua jauregiak hartzen ditu, udan ez ezik urte osoan, UEUK antolatzen dituen ikastaro eta jardunaldi gehienak. Udan honetan, ekainetik hona, 30 ikastaro egin dituzte, horietatik 16 Eibarren. Besteak Baionan, Iruñean, Bilbon, Noainen eta Zumaian egin dira.

UEUK Euskal Herrian antolatzen dituen udako ikastaro guztien koordinatzailea da Irati Iciar. Oñatiarra da jaiotzez, baina txikitatik Gasteizen bizi da. Egunerok etortzen da Markeskuara lanera, eta udako aste hauetan ikastaroak egon diren lekuetan izan da, alde batetik bestera. Aurten Eibarren 11 ikastaro eta lau jardunaldi eskaini dituzte eta Iratiarekin eta ikastaroetako beste protagonista batzuekin egoteko aukera izan dugu.

IRATI ICIAR: “Ikastaro praktiko eta erakargarriak egiten ditugu”

- Zeintzuk izan dira aurtengo berezitasunak eta nolako balorazioa egin dezazue?

Gaietan aniztasuna urteroko ezaugarria izan da, baina aurtengo berritasun nagusia gai horiek lantzeko formatuetan datza. Orain arte bi edo hiru eguneko ikastaroak izan dira gehienak, eta aurten egun bakarrekoak ere izan dira asko. Bestalde, tokietan ere aniztasuna egon da, eta hori izan da ikastaro gutxiago eskaintzeko arrazoi nagusia: toki ezberdinetan egoteak eskatzen du antolakuntza aldetik dena oso lotua izatea, baliabideak mugatuak eta ezberdinak direlako toki bakoitzean. Ikastaro gutxiago, toki gehiagotan. Ohiko lekuetan ez ezik (Iruña, Baiona eta Eibarren) beste leku batzutan ere izan dira, Bilbo, Donostia, Noainen eta Zumaian, hain zuzen ere. Nik uste ongi hartu dugula neurria. Parte-hartzean ere islatu da hori, azken urteotako handiena izan baita: 560 matrikula inguru eta 120 bat irakasle. Beraz, oso gustora gaude emaitzekin.

- Ez da erraza izango ikastaroen aukera egitea. Nola antolatzen dira ikastaroak?

Berez urte osoan egiten dugu lan udako ikastaroekin. Hauek amaitu eta gero balorazioak, txostenak eta horrelakoak izango dira. Azaroan egiten dugu plangintza eta abenduan hasten gara proposamenak eskaintzen. 30 ikastaro hauek

antolatzeko deialdi bat egiten da UEUko bazkideen artean (UEU elkarte bat da, 1.200 bazkide ditu jakintza arloetan antolatuta), eta sailek ikastaroak proposatzen dituzte. Gurekin lan egiten duten hainbat elkarte eta erakunderi ere zabaltzen zaie deialdia, esaterako, ALDEE (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte) edo Jakin aldizkaria. Gainera, hezkuntza alorreko profesionalak ere egiten dituzte proposamenak. Eurek jartzen dute edukia, eta guk, markoa. Eurak dira adituak eta konfidantza dute gugan, eduki horiek lantzeko ematen dizkiegulako baliabideak, bermeak, komunikazio plana,... lana biribiltzeko behar dutena. Aurten 93 proposamen jaso ditugu. Oso zaila izan da egokienak izan daitezkeenak aukeratzea baina, antza denez, asmatu dugu. UEUren altxorra hori da, bere inguruan aditu eta profesionalen sare handi bat dagoela eta proposamen horiekin gure eskaintza egiten laguntzen digutela. Urte guztian egin

“Benetan altxor bat da UEUren inguruan aditu eta profesionalen atxikimendua izatea”

ditugun ikastaroetarako proposamenak ere horrela jasotzen ditugu. Benetan altxor bat da horrelako profesionalen atxikimendua izatea.

- Norentzat izaten dira ikastaroak?

Ikastaroak interesa duen edonorendako dira, irekiak dira, baina jardunaldiak profesionalen bilkura izaten dira. Jardunaldiak orain dela 3 bat urte jarri ziren martxan. Ikusi dugu uda profesionalen bilkura horiek egiteko garai egokia dela. Eguneratze zientifikoaz gain, harremanak egitea lortzen da jardunaldi hauen bitartez.

- Nola eskaintzen dira edukiak?

Udako ikastaroak oso praktikoak izaten dira, oinarri teoriko bat beti dago, baina saiatzen gara erakargarriak eta praktikoak izaten. Azkenean ikasturtean zehar egiten diren ikasketa reglatuen osagarriak dira udako ikastaroak. “Eginez ikastea”, hori da kontua: udako ikastaroak arinak izan behar dira, ondo transmituta eta eginez barneratuko dena. Hitzaldi motz asko izaten dira eta gero askotan praktikak egiten ditugu. Oso parte-hartzaileak izaten dira, azken finean udako ikastaroak harremanak egiteko ezinhobeak dira, eta hori lortzen da pedagogia ireki horrekin.

- Zein izaten da udako ikastaroetan parte hartzen dutenen perfila?

Udako ikastaro gehienetan parte-hartzaile gehienak gipuzkoarrak dira. Iruñean,



“Helburu egingarria da gurea: oinarria badago, ezagutza ere bai eta euskaldunak bagaude”

gehienak nafarrak izan dira, baina gipuzkoarrekin nahiko parekatuta. Argazki bat aterara ezker, pertsona hori izango litzateke gipuzkoarra, emakumea, 30-35 adin tartekoa eta unibertsitate titulazioa daukana, lanbidez irakaslea edo bere aldetik lan egiten duen profesionala.

- Noruntz begira dago UEU? Zein da bere helburua?

Gu euskal komunitate zientifikoaren biltzerga izan nahi dugu, euskal unibertsitatea sortzera bidean. Geure helburua euskaldun guztiak bilduko litzuzkeen unibertsitatea lortzea da, hau da, euskara oinarritzat izango lukeena eta probintzia guztiak kontuan hartuko litzuzkeena. Euskara izatea gu biltzen gaituena. Oinarria badago, ezagutza badago eta euskaldunak ere bagaude. Beraz, egingarria dela uste dut.

Sendabelarrei buruzko ikastaro praktikoa egin dute: bi irteera eta ukenduak

Sendabelarrei buruzko ikastaroan parte hartu dutenak ikasgelatik irten eta bi irteera egin dituzte. Aslehenean Aramaio aldera joan ziren, landaredia atlantikoa dagoen gunera batera. Baserri inguruetan eta ibai ondoan dauden belarrak ikusten egon ziren. Martitzenean Etxaurira, leku lehorrago batera joan ziren, mediterraneo aldeko landareak ikustera. “60 bat landare ikusi ditugu: asuna, katarro eta gripeetarako erabiltzen dena; berberna, sinusitisarentzat; ereinotza, baserriar kulturen garrantzi handia izan duena, baserria zaintzeko erabiltzen zena, eta katarroentzat ere balio duena...”. Eta eguaztenean Markeskuan egon ziren ukenduak eginen.



Eguaztenean lapiko eta su artean ibili zen sendabelarren ikastaroan parte hartu zuen taldea.

ANARTZ ORMAZA:

“Hezkuntza sisteman arkitektura barneratzeko saiakerak dauden arren, oraindik bidea egiten gabiltza”

Azken aldian bolo-bolo dabilen gaia da arkitektura, espazio publikoa, haurtzarora edota gaztarora nahastean dituen. Horretaz aritu dira “Hazi, eraiki, hezi: arkitektura eta hezkuntza espaziala, haur eta gazteen garapenean” ikastaroan. “Nahiko perfil desberdinak etorri dira ikastarora: arkitektoak, irakasle pare bat, gizarte hezitzaileen bat, udal teknikariren bat... Ikastaro formatotik topagune formatora pasatu gara. Oso parte-hartzailea izan da, jendeak badauka bere esperientzia kontatzeko gogoia. Euskal Herri mailan egiten diren ekimen desberdinak erakutsi eta partekatu, hori zen ikastaroaren helburua eta oso dinamikoa izan da. Hezkuntza sisteman arkitektura barneratzeko bultzada handia behar du gaiak, eta aurretik sarea egin eta kolektibitatean lan egin behar dugu”.



* Arkitektoa. Lurralde Kudeaketa eta Antolamenduan Unibertsitatearen Espezialista (UPV/EHU). UEUkidea, UEUko Arkitektura sailburua



AMAIA ARROYO:

“Bideoak aisialdirako baliagarriak badira, ikasteko ere erabilgarriak dira, zalantzarik gabe”

Amaia Arroyok, Joseba Makazagarekin batera, irakaskuntzarako bideoak nola sortu azaldu du ikastaro honetan. “Ikusten dugu gazteen artean gero eta gehiago erabiltzen dela bideoa, aisialdian batez ere, eta uste dugu bideoa erraminta potentia izan daitekeela hezkuntzara begira. Alde teknikoaz gain, gida-lerroak, aholkuak, irakaskuntzari begira irizpideak, arlo didaktiko eta pedagogikoa, estetikoa... landu dugu. Azken finean kalitatezko bideoak egiteko oinarritzeko arau eta irizpideak azaldu ditugu. Talde txikia izan da eta dinamika kooperatiboa erabili dugu. Irakasleak izan dira ikastaro honetara etorri direnak. Bideoa erraminta bezala erabiltzeko beharra ikusi dutelako animatu dira parte-hartzera”.

*Hezkuntza Berezia Magisteritzan diplomaduna da. IKTak formazioan aplikatuta masterduna

Markel Artetxe (foballaria)**"Zu baino nagusiagoekin jokatzea aberasgarria da beti"**

Oscar Artetxe instituzioa izan da Eibar Foball Taldean: zeozergatik jokatu zuen 11 denboralditan eta taldeko kapitaina izan zen. Haren iloba dugu Markel, azken denboraldia behetik etorrita Eibar Urko jubenil mailako lehen taldean amaitu duena. Irailetik aurrera Euskadiko Kopa irabazi berri duen talde berean jokatu du. Hala ere, ez ditu ikasketak baztertuko, "asteen lau entrenamendurekin, denbora asko eskatzen badu ere". Foballari profesionala izatea du amets eta hori betetzeko bideari eusten dio.

**- Zelako esperientzia bizi izan zenuen Euskadiko Kopa irabazita?**

Oso polita izan zen guztia. Behin denboraldia hasita nagusiagoen taldera igotzen dizutenean ilusio berezia egiten dizu eta, zer esanik ez, eurekin Euskadiko Kopa irabazterakoan. Gainera, partidu osoa jokatu nuen, hemen Eibarren izan zen... ez ahazteko modukoa izan zen dena.

- Zein postutan jokatzeko duzu? Edo aldatzen zoaz?

Atzelaria naiz, eta zentral postua da nire tokia. Jardun izan dut alboko moduan ere hainbat partidutan, baina zentral gisa hobeto moldatzen naiz.

- Izan duzu, edo baduzu, eredurik foballean? Norbaiten ibileran fijatuzara?

Bat esatekotan, Carles Puyol aipatuko nuke. Bai zelaian erakutsitakoarengatik, eta baita zelaitik kanpo duen jarrerarengatik ere. Kementsua da, jokatuako partidu bakoitzean dena eman du beti... beharrezko baloreak erakutsi izan ditu.

- Zure osaba Oscarrek ere ildo urratu du eibartarron artean. Ikusi zenuen jokatzeko?

Oso txikia nintzen erretiratu zenean. Berari buruzko erreferentziak jaso izan ditut, hori bai. Eta baita hainbat parti-

ditako bideoak ikusi ere. Nik eredutzat daukat eta, edozein zalantzaren inguruan, berarekin komentatzen dut. Asko laguntzen dit.

- Foballetik aparte, beste kirolik egin duzu?

Bai, pilotan ere ibilitakoa naiz. Gusatzen zitzaidan, baina Eibarren sartu nintzenean aukeratu behar izan nuen eta baloia hautatu nuen.

- Zure dohaien artean, zein duzu funtsezkoena? Eta non zabilta makalago, zer duzu hobetzeko?

Bertuteen artean, buruz ondo noaia esango nuke. Atzelaria izanda, bederatziko gol sartu ditut azken denboraldian; eta gehienak buruz izan dira. Bestalde, hankekin badut, bai, zer hobetzeko: baloiarekin bidea dut oraindik egiteko.

- Lesioek ez dizute arazo handirik eman, ezta?

Zortea izan dut orain arte: oso gutxi izan ditut eta bat bera ere ez garrantzitsua.

- Gustatu zaizu amaitu berri den Euskadiko Kopa? Gehiago espero zenuen?

Izan dira neurketa interesgarriak, baina orokorrean ez nau bete. Zeozer gehiago eskainiko zigulakoan nengoen. Griezmann izan da gehien nabarmendu den jokalaria, asko hobetu du.

**IRENE FERNANDEZ DE PINEDO (2015-VII-31)**

"Gure Bihotzeko Amateko maitea, maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako. Agurrik ez, gero arte baizik. Lagundu eiguzu, beti bezela. Dana maitasuna zara"

ZURE SENIDEAK

BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA UZTAILAREN 22AN ARRATSALDEKO 19.00etan, SAN ANDRES ELIZAN.



EGO-ko gazteak biharko estreinaldirako prest

Urteroko moduan, Euskal Herriko Gazte Orkestak (EGO) udako denboraldian eskainiko dituen emanaldiak prestatzen dihardu Eibarren, 90 musikari gazte egunotan Hezkuntza Esparruan egiten ari diren topaketan. Orkestak aurreko barixakuan aurkeztu zuen Donostian uda honetarako egitaraua eta, ekitaldi berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta BBK, Kutxa eta Vital Kutxa entitateen gizarte-ekintzak hiru kutxen eta EGOren arteko lankidetzaz hitzarmena berretsi zuten 19. urte jarraian. Aurkezpenean au-



90 musikari gazte daude egun hauetan Hezkuntza Esparruan hurrengo emanaldiak prestatzen.

rreratu zuten, EGOren 19. denboraldia izango den honetan orkestak bere historiako proiektu handi eta konplexu-erakunde bat aurkeztuko du uztailearen 16tik 20ra emango dituen lau kontzertuetan: Gustav Mahlerren 1. sinfonia, "Titan" izenokoa interpretatuko du Bilbon (bihar, Euskaldunan), Donostian (astelehenean, Victoria Eugeniean), Gasteizen (martitzenean, Principal antzokian) eta Hondarribian (eguztazkenean, Itxas Etxea auditoriumean). Lau emanaldiak 20:00etan hasiko dira eta Juan Jose Ocon-ek zuzenduko ditu.



tzen dihardute zapatuz geroztik: Catalin Bucataru eta Anna Siwek (biolina), Paul Cortese (biola), Gabriel Mesado (biolontxelo), Gabriel Leon (kontrabaxua), Javier Alonso (perkusioa), Herve Michaud eta Oscar Abella (haize instrumentuak). Topaketarako irakasle aukeratu dituzten haiek Bartzelonako goi mailako Liceu kontserbatoriotik, Musikenetik eta Nafarroako, Euskadiko eta Bilboko Orkestra Sinfonikoetatik etorritakoak dira.

ten aldeko apustua egiten du, "gazteek erreperitorio profesional eta klasikoa izan dezaten". Oconek azaldutakoaren arabera, orain arteko ibilbidean "obra handiak" egin izan dituzte, baina "in crescendo" joan nahi dute. Helburu horrekin aukeratu dute, hain zuzen ere, Mahlerren 1. sinfonia. Zuzendariak dioenez, "obra bereziki konplexua da, panorama sinfonikoan zailtasun eta edertasun handiena duen programetako bat, baina gazteak oso motibatuta eta prestatuta daude". Bere ibilbidean orkestak 150 kontzertu baino gehiago eman ditu eta hemeretzi urte hauetan orkestan egon diren 1.200 ikasleek 120.000 entzule erakarki dituzte.



Goi mailako irakasleak

Ohi bezala, bihar estreineko eskainiko duten kontzerturako eskarmentu handiko goi mailako irakasleekin presta-

1.200 ikasle 19 urtetan

Orkestaren eginkizun nagusia "musikariei kalitatezko prestakuntza" eskaintzea da eta, asmo horri jarraituta, fundazioak "egitarau konplexu" ba-

EMANALDIAK

- Uztailak 16: Bilboko Euskaldunan, 20:00etan.
- Uztailak 18: Donostiako Victoria Eugeniean, 20:00etan.
- Uztailak 19: Gasteizko Principal antzokian, 20:00etan.
- Uztailak 20: Hondarribiko Itxas Etxean, 20:00etan.

MARIA GISASOLA UGARTEBURU 3. URTEURRENA: 2013-VII-11



ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.

Zure familia



Asiako liztorrak gero eta ugariagoak izanik, norbaitek habiaren bat atzemanaz gero erleak ala liztorrak izango diren, gero eta sarriago sortzen dira horrelako zalantza eta beldurrak. Horregatik, horrelako kasuetan nola jokatu behar dugun jakitea komenigarria da denontzat. Batez ere gutxien espero dugunean horrelako egoerari aurre egin beharra egon daitekeelako, guri orain egun batzuk gertatu zitzaigun moduan.

ZER EGIN KANPAMENDUA ETXE-ATARIAN eraikitzen dizutenean?

Udaltzainek azaldu digutenez, **"norbaitek habia ikusi duela esaten deituz gero, toki horretara joan eta argazkiak egiten ditugu, Asiako liztorrak diren ala ez konprobatzeko, eta liztor asiatiakoak direla egiaztatuz gero, Debemenen bitartez webgune batera datuak sartzen dira (abisuarekin deitu duenaren kontaktua, habia dagoen toki zehatza...) eta**

eurak arduratzen dira hara joan eta habia kentzeaz. Hala ere, tokiaren arabera, sarritan mendi edo basoetan, arboletan oso altu daudenean ezin izaten dira haraino ailegatu eta orduan eurek ere protokoloa aldatu behar izaten dute, suhiltzaileei abisua pasatu eta eurak kentzera joateko".

Baina liztor asiatiakoak izan beharrean erleak badira, orduan bestelako erantzuna ematen dute. Eta gu horren lekuko zuzenak izan gara, orain dela egun batzuk Urkizun, ...eta kitto! Euskara Elkartearen ate parean bapatean erleak pilatzen hasi eta ordu gutxitan erlauntza eraiki zuten eta. Udaltzainak ikustera etorri eta berehala argitu ziguten erleak zirela, "autoktonoak" gainera eta ez larritzeko, etorriko zirela kentzera. Eta handik pare bat egunera hala egin zuten, horrelako kontuetan aditua den Antonio Marquez Carranza, Elgoibarren bizi



Horrelako erlauntza txikiak erregina gazteek eraikitzen dituzte.

den erlezaina ekarrita. Atarian genituen erleak euren etxe berria izango zenera eramateko kuxan sartzen ziren bitartean, erlezainaren ahotik erleei eta euren bizimoduari buruzko gauza mordea ikasteko aukera paregabea izan genuen. Urteak eta urteak erleak zaintzen eman dituen erlezainak azaldu zigunez, "erleak feromona bidez komunikatzen dira eta, kea botata, horiek blokeatu egiten dira eta, beraz, ezin dute arriskuaren abisurik transmititu, horregatik ez dira beldurtzen eta kuxara lasai-lasai sartzen joaten dira, erasotzeko keinurik txikiena ere egin barik".

Sasoi honetan horrelako erlauntzak batzera joateko eskaera ugari jasotzen dituela esan zigun:

"Hemen eraiki duten erlauntzari 'jabardo' esaten diogu, hau da, oso handia ez den bigarren mailako erle pilo. Erlauntza batean erregina bat baino gehiago jaitzen da, baina bakarrarentzat toki egoten denez, indartsuena, jarraitzaile gehien izaten duena geratzen da bertan bizi izaten eta beste erreginek ospa egiten dute. Batzuetan erregina gazte horietako batek, berarekin joan nahi izan diren erleekin batera erlauntza berria egiten du eta hemen daukazuena horrelako erlauntza da". Zenbat erle egon litekeen nola kalkulatu galdetuta, horretarako erleak pisatu beharra zegoela esan zigun: "Kilo bakoitzeko milioi bat erle dagoela kalkulatu da".



Elgoibarrera, han zaintzen dituen erleekin batera bizi izatera eraman zituen erle horiek. Ezta- ren erleek ("Apis mellifera") hainbat gaixotasun izaten dituela esan zigun Antoniok. Tartean barroosia (lehen barroosia deituta- koa) izenekoa. Erle helduen eta kumeen kanpoaldeko parasito- ak, "barroa" izeneko akaroak, era- giten duen gaitza da eta lau mo- ta daude, baina "barroa destruc- tor" izenekoa da garrantzitsuena. Mundu osoan zehar dago zabal- duta, Australian eta Zeelanda Berriko hegoaldeko uhartean izan ezik. Kalte handia eragiten die erlauntzei: batetik, akaroak espoliatzeko gaitasuna duelako eta, bestetik, birus zein bakterio- infekzioak agertzen direlako. Izan ere, akaro honek erleen he- goa deformatzen duen birusa transmititzen du, besteak beste. Baina gaixotasunak erlauntzari kalte handia egin diezaiokkeen arren, gaur egun gaitz honi aurre egiteko sendagaiak daudela eta, beraz, gaixotasuna agertuz gero arazoa nola konpondu badakitela esan digu erlezainak. Edozein kasutan ere, eta jendea lasaitze aldera, erleen gaixotasunek ba- karrik eurei kalte egiten dietela argi lagatzea komeni da. Izan ere, ez barroosia ez erleen gai- xotasun bakar bat ere kutsakorra ez dela gizakiarentzat.

Baina azken urteotan bada er- lezainak benetan beldurtzen eta kezkatzen dituen beste arazo bat: jatorriz Indiako iparraldekoa den Asiako liztorra edo liztor bel- ta ("Vespa velutina") etsai arris- kutsua da erleentzako. Dakigula behintzat, Frantzian, Bordele inguruan azaldu zen lehenengoz 2004an. Dirudenez, Txinako Yunnan-dik etorritako merkan- tzia-ontzi batean ailegatu zen eta handik urte bira espezie horren lehen deskribapena eman zuten argitara Frantzian. Oso azkar he- datzen hasi zen eta, han eta he- men sortzen joan ziren arazoak ikusita, 2007an hasi ziren erle- zain frantsesen lehen mobiliza- zioak, herritarrak arazoaren larri- tasunaz ohartarazteko. Ordurako Frantziako hego-mendebaldean milaka liztor-habia zeuden. Muga pasatu eta 2010erako Gipuzko- an eta Nafarroan ere antzeman zuten liztor mota hau. Adituek diotenez, espezie honen jatorria den Asiako hego-ekialdeko bal-



Erleen gizarte konplexua

Erlauntza guztietan erregina, erlamandoak eta langileak daude eta bakoitzaren zeregina oso argia eta zehatza da.

- Erregina: erlauntzako handiena da eta erlauntz bakoitzean bat bakarrik dago. Gorputz luzea du eta ez dauka eztenik. Emea da eta zeregin bakarra dauka: arrautzak errutea.
- Erlamandoak: ez dauka eztenik. Bere eginbeharra erregina ernaltzea da. Tamaina handia izaten dute eta erlauntzan 20.000 bat egoten dira.
- Langileak: hauek eztena daukate. Hauen betebeharrak erlauntza zaintzea, eztea eta polena biltzea eta umeak (larbak) zaintzea dira. Erlamandoak baino txikiagoak izaten dira eta milaka daude erlauntzan.

dintza klimatikoak eta Europako hegoaldekoak antzerakoak dira eta horregatik egokitu omen da horren azkar bizileku berrira.

Erleen etsairik okerrera

Espezie inbaditzaile honek erlei eragindako kaltea izugarria

da. Berez liztor guztiak dira erleen depredatzaile, baina maila desberdinean espeziearen ar- bera. Eta liztor asiaticoak gaur egun erlategi batek izan dezake- en mehatxurik handiena dira za- lantza barik. Erleak ez ezik uliak, tximeletak, harrak eta bestelako



Behin betiko bizitoki izango duten erlauntzara eramateko horrelako kutxa bereziak erabiltzen dituzte.

intsektuak ere jaten dituzte, umeak elikatzeke proteina (hau da, "haragia") behar dutelako. Gai- nera liztorrak erlauntz inguruan egoteak estres handia eragiten die erleei eta ez dira ausartzen barrura sartzen. Horren eraginez erle-kolonia despokatzen eta ahultzen joaten da. Erlauntzera ere sartzen dira liztorrak eta, er- leak hiltzeaz gain, larbak nahiz ez- tia jaten dituzte. Azkenean, era- sotik libratzen diren erleek er- launtza laga behar izaten dute.

Asiatik etorritako liztorrei aurre egingo dion behin-betiko kon- ponbidea aurkitu bitartean, lizto- rra kontrolatzeko metodo bat- zuk, besterik ez daukagu: uda- berrian erreginentzako tranpak jartzeak garrantzi handia dauka, han sartzen den erregina bakoit- zeko habia bat gutxiago izango delako. Langileak harrapatzeke tranpak, berriz, udan eta udazke- nean ipintzea gomendatzen du- te, sasoi hortik kanpora liztor gu- txi erakarriko direlako eta, beraz, tranpen eragina oso txikia izango delako. Eta tranpekin batera, liz- torrak akabatzeke modurik era- ginkorrena habiak puskatzea da. Hala ere, hori ez da lan erreza izaten, besteak beste habia gehienak arboletan egiten dituz- telako, lurretik 20-30 metrotara eta, aurkitzea oso zaila izateaz gain, horietaraino ailegatu ahal izateko ekipo bereziak erabili be- har izaten dira. Horregatik habia gehienak suhiltzaileek suntsitu behar izaten dituzte.



osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

Eguzkia

Uda heldu da, eta ondorioz, eguzkia. Gure umorea hobetuko da, etxetik kanpo nahi ditugun jarduera guztiak egiteko aukera izango dugu, eta askok, gustoko duten azal beltzarana lortzeko aukera izango dute. Baina azken hau ez da beti horrela izan. XVIII eta XIX. mendeetan, azal beltzarana, langileen ezaugarria zen, nekazari eta abeltzainena, eta "eliteak", beti modak ezarri dituztenak, azala ahalik eta zuriena edukitzen saiatzen ziren. Aurrekoa XX. mendearekin aldatu zen, Coco Chanel aitzindari, eta Hollywood-en lagun-

tzaz, azala beltzarana modan jarri zen. Dirudunei, azal beltzarana, aisialdian ematen zuten denbora erakusteko balio zien, eta eliteak imitatu nahian, denok azal beltzaranena lortzeko lehian sartu ginen. Olioak, mantekak, hondartzetan ordu amaigabeak, auto-brontzeado-reak, kabinak.....zorarena.

Baina zorionez, XXI. mendearekin batera, gauzak aldatzen hasi dira, eta badakigu, eguzki izpiek onurak badituzte ere, kalte ugari eta arriskutsuak ere badituztela, melanomak kasu, eta azala zaindu behar dugula hauek ekiditeko.




Eguzki izpiek azalaren zahartzeko prozesuan eragin nagusia dutela ere badakigu.

Beraz, eguzkiak gozatu, etxetik kanpo ekimenak egiteko aukera aprobetxatu, baina osasuna eta zimurrik gabeko azala mantendu nahi baduzue, ez ahaztu eguzkiko krema!

LGBTI harrotasun eguna

Ekainaren 28an Nazioarteko lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen (LGBTI) harrotasun eguna ospatu zen. Horren harira, hilabete horretan ekitaldi mordoak egiten dira munduan, egun horretako jai-kalejirekin agurtzen dutenak. Helburua, oraindik diskriminazioa sufritzen duen kolektibo batentzako berdintasuna aldarrikatzea da. Desberdintasunak (transexualitatea eta intersexualitatearen kasuan) edo amodioak (gehiengoaren pautan heterosexuala jarraitzen ez denean) intolerantzia edota gorrotoa eragiten dute oraindik.

Orlando (Florida) LGBTI Harrotasun Eguna baino bi aste lehenago: 50 hildako eta 53 zauritu *Pulse* diskotekan. Gizabanako bat lokalean sartu eta tiroka hasi zen, giza-bizitzaren kontrako erabateko mesprexua erakutsiz. Sarraskia egin zuenaren aitak adierazi duenez, *"hilabete batzuk lehenago bi gizon elkarri musu ematen ikusi zituen Miamin, bere emazte eta semearen aurrean, eta haserre bizia eragin zion horrek"*. Maitasun-adierazpen publiko batek horrelako erreakzio bat sortzen du? Armak sekulako erraztasunarekin lortzen diren herrialde batean? Maitasun ekintzak ikusteagatik eskandalizatzen gara eta ez gara asaldatzen inguruan daukagun bortizkeriarekin? *Pulse* diskoteka Floridako LGBTI komunitatearen gaueko aisialdirako lekuri ospetsuena da eta bertan HIESaren prebentzioren gainean lan handia egin da.



arantza
alvarez
SEXOLOGOA

AEBn gertatzeak are mediatikoagoa egiten du hilketa, baina ezin dugu ahaztu beste herrialde batzuetan egoera oraindik oso kritikoa dela. Hausnarketarako datu batzuk:

Homosexualitatea ilegal da 79 herrialdetan, eta horietako zazpitan heriotz-zigorra aplikatzen dute: Saudi Arabia, Arbiar Emirerri Batuak, Iran, Mauritania, Somalia, Hego-Sudan eta Yemen. Beste herrialde batzutan kartzela zigorrak ezartzen dituzte, kasu batzutan, behin-betikoak: Argelia, Libia, Nigeria, Maroko, Tunisia, Senegal, Kamerun, Etiopia, Uganda, Tanzania, Namibia, Kuwait, Libano, Qatar, Siria, Afganistan, Bangladesh, Pakistan, Sri Lanka, Ipar Korea, Brunei, Indonesia, Malasia....

Gobernu batzuk isunak, derrigorrezko lanak eta deportazioak ezartzen dituzte: Liberia, Angola, Barbados... Eta zenbait lekutan bakarrik gizonezkoen homosexualitatea zigortzen dute: Ghana, Sierra Leona, Kenia, Seychelles, Zambia, Zimbabwe, Jamaika, Turkmenistan, Uzbekistan, Singapur...

Azkenik, aipatu ezkontza homosexuala eta adopzioa soilik 10 herrialdetan dela legala: Argentina, Hegoafrika, Kanada, Islandia, Norvegia, Suedia, Belgika, Herbehereak, Portugal, Espainia eta Mexiko eta Estatu Batuetako zenbait lekutan. Zoritzarrez, oraindik badaude pisuzko arrazoiak Nazioarteko LGBTI Harrotasun Eguna izateko eta tolerantzia eta berdintasuna aldarrikatzeko.



Eibarrek herenegun hasi zituen entrenamenduak 27 jokalarirekin

Inoiz izan duen jokalaria kopuru handienarekin ekin zion aurrendenboraldiko lehen entrenamenduari Mendilibarrek gidatzen duen foball taldeak; hala eta guztiz ere, Fran Garagarza zuzendari teknikoak beste hiru/lau fitxaketa egiteko asmoa du oraindik denboraldia hasi aurretik. Bebé aurrelaria eta Yoel atezaina izan dira aste honetan heldu diren azkenak. Bestalde, datorren astean jokatuko dituzte lehenengo lagunartekoak: martitzenean Real Unionen aurka izango dira Irungo Gal estadioan; eta barixakuan Sanse-ren kontra jokatu-

ko dute entrenamendu gehienak egiten dituzten Atxabalen. Uztailaren azken astean Mirandako Anduvan izango dira bertako Mirandesi aurre egiteko, hilaren 26an. Ondoren Austriako Kössen-era joango dira, bertan hamabost eguneko egonaldia egiteko, tartean lau partidu jokatuzko: Besiktas, Colonia eta Leipzig lotuta dituzte eta laugarren aurkaria zehaztu behar dute. Handik itzultita, liga hasi aurretik, beste hiru partidu jokatuko dituzte: Realaren aurka Bergaran, Zaragozaren kontra La Romaredan eta lotu gabeko beste bat.



Yoel atezaina eta Bebé aurrelaria aurkezpen ekitaldian.

Urkora 69tan ezetz!!!

Ermuko Patxi plazatik Urko puntara oinez, norberak aukeratzan duen bidetik, 69 minututan heltzea da probaren helburua. Eta parte-hartzaileek ezingo dute erlojurik, ez telefonorik eraman, ezta denbora neurtzeko beste biderik erabili (esaterako, jendeari galdetu, argazki makinan begiratu...). Ermuko Santixao jaietako egitarauaren barruan dago eta aurten 8. edizioa beteko du bihar goizeko igoera neurtu horrek. Inskripzioa euro batekoa da eta 10:00etan zabalduko da Patxi plazan. Urko puntara 69 minututan (edo goitik gertuen) heltzen denak irabaziko du proba; arinago heltzen dena deskalifikaturik geldituko da. Geldialdiak, bestalde, nahi beste egin daitezke, baina Urko puntatik 20 metrora jarriko den kontroletik aurrera ezin izango da egin (derrigorrez pasatu behar da bertatik). Parte-hartzaileek tontorra ikutzearan inskripzioko

txartela eman behariko dute eta irabazle bakarra izango da: berearentzako saria... irterean jasotako txanpon guztiak. Animo, proba polita da-eta mendian ibiltzea gustoko duzuen guztiontzat.

lazko irabazlea jasotako sariekin.



Txapeldunak padelean, azpitxapelduna tenisean

Elgoibarko 40-15 klubak antolatutako tenis eta padel torneook euren azkenak eman dituzte dagoeneko. Hainbat aste iraun duten txapelketetako finaletan, gainera, eibartarrak izan dira finalista; eta ez hori bakarrik, txapela janzteraino iritsi direlako padelean. Alberto Gonzalezek eta Jon Etxaidek iaz lortutako txapela berretsi zuten Bergarako Patxi Vallejos eta Juan Luis Etxanizen aurrean. Azken horiendako izan zen lehen set-a, baina eibartarrak ondo erreakzionatu zuten eta azkenean ti-

tulua bereganatu zuten, hurrengo bi set-etan 6-3 eta 6-4 nagusituta. Nesketan Nora Hadi eta Ane Iñiguez elgoibartarrak Bego eta Encarni Muñoz nagusitu zitzaizkien 6-3 eta 6-4. Tenisean finalera heldu zen Ruben Pinillos eibartarrak amore eman behar izan zuten Agustin Quintana azkoitiarraren aurrean. Eibartarrari kostatu zitzaion partiduan sartzea eta 6-0 galdu zuen lehen set-a; bigarreanean, baina, maila eman zuen eta hor gogoretsi zion aurkariari, azkenean 7-6 galdu bazuen ere.

Iñigo Villabak amaitu zuen Gasteizko Ironmana



Eibar Triatloi Taldeko ordezkari bakarra izan zen Iñigo Villabak Gasteizko Ironman erdian parte hartu zuen aurreko domekan eta, 1.200 partaideen artean, 368. postuan amaitu zuen proba. Distantzia luzeetan espezializatutako triatloilariak bost ordu eta 12 minututan osatu zuen bidea. Egin zuen beroa zela eta, 130 lagun artatu behar izan zituzten.

Jon Osa Urbateko igerilaria Espainiako txapelketara

Eibarko Urbat igeriketa taldeko 14 urteko debarrak Gipuzkoako txapela jantzi zuen infantil mailako bizkar erako 200 metroko proban eta, horrez gain, uztailaren 28tik 31ra arte Malagan jokatuko diren Espainiako txapelketetarako gutxieneko marka eskuratu zuen. Horrez aparte, aukera izango du modalitate bereko 100 metroko proban ere parte hartzeko, hor jarduteko marka lortu baitzuen Gasteizen jokatutako junior eta absolutoko Euskadiko txapelketetan. Jon Osa 400 metro libretan parte hartzeko gutxieneko markatik segundo bakarrera geratu zen.

Tubi: marka guztien jabe lastoarekin

Dimakoa da Jose Martin Bustinza "Tubi", baina gure artean bizi da 2004az geroztik, Arrateballeko Arizmendi baserrian. Herri-kirola praktikatzen du eta lastoa jaurtitzen zein altxatzen ez du parekorik. Zeozergatik dugu gaur egungo Euskal Herriko txapelduna modalitate bietan: "Lasto-altxaketan jokaturako hamar txapelketa ofizialetik sei eraman di-

tut etxera. *Eta lasto-jaurtiketan jokaturako txapelketa guztiak irabazi ditut, hamarrak*" dio bizkaitarrak. Laster urtea beteko da lasto-fardoa altxatzen marka egin zuela: "Aian izan zen, iazko abuztuan, eta 25 jasoalditan laga nuen marka. Aurrekoa ere nirea zen, 24rekin". 45 kiloko fardoa da altxatu behar dena, zazpi metroko altueraraino, bi minututan. Lasto-jaurtitzean, bes-



talde, sarda batez baliatzen dira 12 kiloko fardoa bota eta markaturako altuera gainditzeko. Azken modalitate horretako marka ere berarena da, jakina: "Orain dela urte bi lortu nuen eta 6 metro eta 70 zentimetrotan dago".

Udan izaten du Tubik lan gehien, "txapelketak izan, erakustaldiak direla". Eibarraren ere aukera izan genuen, Euskal Jaieraren egitarauaren barruan, Toribio Etxebarrian eskaini zuen erakustaldia ikusteko. Azitaindik ere deitu diote eta han izango da, abuztuaren 15ean, "auzoko Andra Mariaren Jasokunde jaietan". Iparraldeko jokoak deitzen diren horietan jarduten du, "lasto, ingude eta orga probetan, batez ere".

Hamasei urte daramatza herri-kiroletan. Aurretik, baina, beste hainbat kirol praktikatzen ditu eta ez dira urte gutxi izan saskibaloia eskainiak. "Umetan foballean jardun nuen, zelan ez! Gero hamar bat urte egin nituen saskibaloian, laga eta atletismoari heldu nion. Hor pare bat urtetan pisu eta jabalina jaurtiketan aritu eta gero, saskibaloira pasatu nintzen berriro. Herri-kiroletan hamasei urte daramatzat". Bapatean hasi zen herri-kiroletan, "lagun batek erakustaldi batean laguntzeko" esan zionean, "harria nork ipini ez zuela-eta". Ahalegina egiteko eskatu zion eta 100 kiloko harriarekin egin zuen proba: "Dimako jaiak ziren, lau altxaldi egin nituen eta baita ondo puztu ere!". Horrek ez zion atzera bota eta berehala sartu zen saltsan, "Arratian, Diman eta Zeanurin jendea babil-eta herri-kirolen bueltan".

Praktikatzen duen modalitatean teknika jabetzeak asko esan nahi du: "Jasotzean eskuak ez erretzeko, soka hartu egin behar duzu neurri batean. Bularra ere komeni da zaintzea probari aurre egiteko eta, jakina, bizkor ibili beharra dago: bi minutu besterik ez dira". Lastoa botatzera koan, ordea, "indarra behar da, nahi eta nahi ez!". Baita erresistentzia ere, ikusita zelan garatzen den proba: "4 metrotik 5



Marka lasto altxatzean:
25 jasoaldi
2 minututan
45 kiloko fardoarekin



entrenamendu egiten ditu, "batez ere, lastoa jasotzen". Neguan astean bitan jardunda nahikoa izaten du, "bestela hankak kargatu egiten zaizkizu-eta. Ondo dago noizbehinka atsedena hartzea". Entrenamenduak, gainera, Diman egiten ditu: "Bertako frontoian egitura finkoa daukagu jarrira entrenatu ahal izateko; fardoak altxatzeko zazpi metroko egitura jaso behar delako". Txapelketa-egunak lasai hartzen ditu Jose Ignacio Bustinzak: "Goizean jaiki eta mendira joaten naiz, ordu erdi baterako, luza-

ketak egin eta hankak mugitzeko. Lan esplosiboa da gurea, erlojuaren kontrakoa, eta ezin da hutsik egin. Akats batek arriskuan jartzen du azken emaitza. Giharrak kargatzeko arriskua ere kontuan izan behar dugu".

Erakustaldi sasoian sartuta dago Tubi eta hainbat herrialdetan izandakoa dugu: "Kanariar uharteeetan, Bartzelonan... egin ditugu erakustaldiak. Txilerako gonbidapena ere jaso dut, baina urrutiegi dago hura", dio 44 urteko kirolariak. Ez die etorkizun askorik ikusten herri-kirolei: "Gazteren bat edo beste badago aizkoran, emakumeak ere gero eta gehiago ikusten dira... baina gazteek ez dute jarraitzeko idolorik. Sasoi batean haiek gerturatzen zituzten gazteak herri-kiroletara. Eskoletan ere egin izan dira ahaleginak herri-kirolak sartzeko, baina etxean eta inguruan halakorik izan ezean zaila da bakarkako kirolei heltzea".

nacio Bustinzak: "Goizean jaiki eta mendira joaten naiz, ordu erdi baterako, luza-



Jose Martin Bustinzak erakustaldia eskaini zuen azken Euskal Jaian, Idoia Etxeberria eta Ostolaza harrijasotzaileekin. **Leire**

metrorra arteko tartean, batetik bestera 20 zentimetro igotzen da maila; eta 5 metro-tik aurrera, 10 zentimetro. Altuera bakoitzak gainditzeko hiru aukera duzu, baina banan-banan gainditzen joan behar zara; ezin duzu altuera bat egin barik laga, eta horrek neke handia dakar".

Behin uda sasoi helduta, astean 3-4



Marka lasto jaurtitzean:
6,70 metroko altuera
12 kiloko fardoarekin



IKER ARANBERRI

Nostalgia

Azken urteetan Donostiari lotutako hainbat proiektutan lan egitea egokitu zait, tartean Urumea ibaiari protagonismoa itzuli nahi dion HidroLogikak egitasmoa. Donostia, hain hiri turistikoa izanik, hondartzei eta itsasoari begira bizi izan da azken urteetan, ibaiari bizkar emanek. Urumeak duen ingurumen-aberastasuna ezezik, bere aberastasun soziala eta kulturala aldarrikatu nahi ditu egitasmoak, hainbat mendetan zehar bere ertzetan bizi izan diren izaera eta bizimodua zizelkatu dituelako. Eibarren egoera oso antzekoa dela iruditzen zait. Gure herria mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duen Ego ibaia ezkutatu egin dugu, zentzu figuratiboan (inolako funtziorik betetzen ez duela uste dugu, ia-ia bere existentzia bera ere ahaztutzeraino) eta literalean (etxe eta errepedeekin estali dugu zatirik gehienetan, ikusteko deseroso den hautsa alfonbra azpian ezkutatzeko dugun bezala). Aurreko astean Oier Gorosabelek Eibar.org-en Birjiñapeko pasabideari buruz idatzi artikulo batean Ego ibaia agerian zegoeneko argazki eta planoak ikusi nituen, eta nostalgia barrerean ziztatu zidan (bide batez, nola senti daiteke nostalgia, ezagutu ez dituzun garai batzuekiko?). Eibarko kaleetatik, bertako asfaltoaren eta porlanaren gainetik oinez zoaztenean, gelditu pausoak; pentsa oinen azpitik Ego ibaia bere bidea egiten jarraitzen duela. Eta zuek ere gure guraso eta aiton-amonek ibaia bizi eta ibaiaz gozatzeko zuten garaiekiko nostalgia sentituko duzue.

Allarizeko musika bandaren kontzertua

Allariz (Ourense) herriko La Union Musika Bandak aste bi emango ditu etxetik kanpora, Euskadi eta Frantziako hainbat herritan kontzertuak emateko biran eta, bidaiari horren harira, asteburu honetan kontzertu bana emango du Ermua eta Eibarren. Bihar egingo diren kontzertuak eta, horrez gain, abuztuaren 12tik 14ra bitartean Allarizek hartuko dituen Euskadi-Galizia Jardunaldiak Eibarko udaletxean aurkeztu zituzten martitzenean Miguel de los Toyos Eibarko alkateak, Carlos Totorika Ermuko alkateak, Francisco Garcia Allarizeko alkateak eta Patxi Lejardi Kultura zinegotziak. Ekitaldian azaldu zuten, "antolatutako emanaldiak zein jardunaldiak Allarizek Eibar eta Ermuarekin daukan lotura sendotik sortu dira eta



Abuztuaren 12tik 14ra Allarizek Euskadi-Galizia Jardunaldiak hartuko ditu.



Totorika, Garcia eta De los Toyos martitzenean emandako prentsaurrekoan.

asmoa, besteak beste, egindako harrerarengatik Galiziatik Euskal Herrira beharrera etortzeko esker ona azaltzeko zein etorkin horiei hemengo herrien garapenaren alde egindakoa aitortzea litzateke".

Jose Manuel Vegak zuzenduta, Allarizeko musika bandak bihar egingo ditu emanaldi biak, Ermuan 13:00ean (Kardenal Orbe plazan) eta iluntzeko 20:00etan Eibarren, Untzaga plazan. Kontzertuetarako prestatu duten programa, bestalde, honako hauek osatzen dute: "Musica

y poble" (Ferrer Serra), "Medley-boleros" (Bernauerst-en konponketa), "Aurora" (Oscar Sempere Frances), "Ars-Amandi" (Oscar Sempere Frances), "Cuero y caña" (Oscar Sempere Frances), "Banda sabrosa" (Marcela Sousa), "Medley parti" (hainbat egile) eta "O caeiro" (Felixindo Perez).

Abuztura begira, Euskadiko Eguna Allarizen ospatzeko egitaraua osatzeko beharrezkoak direla azaldu dute eta, orain arte lotutako ekitaldiak abuztuaren 13an Ernesto Ezpeleta Bihurriren eskutik egingo den herri kirol erakustaldia eta Mugi Panderoa taldeak girotuko duen erromeria direla aurreratu dute.

Mirari eta Aintzaneren "Bidea hauspotzen" diskoa salgai

Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña trikitilariak "Bidea hauspotzen" diskoa kaleratu dute, 13 kanturekin, eta gehienetan musika zein hitzak eurek sortutakoak dira. Lana Legarreko estudioan grabatu dute, Walter Tuzzeo soinu-teknikariarekin, eta ia urtebete eman dute horretan. Lanaren grabazioan hainbaten laguntza izan dute: Walter Tuzzeok berak instrumentu desberdinekin (baxu, gitarra eta shakerrarekin) lagundu die; Eugenio Gisasola "Lutxurdiok" bateria jo du kantu askotan; Trio Medianoche-ko Bernardo Aguilera gitarra eta txarangoarekin lagundu die; eta Eli Andrinuak pianoa jo du kantu batean. Horiekin batera, etxekoen kolaborazioa ere izan dute: kantu batean Eugeni Uberak (Aintzaneren



amak) eta Ander anaiak hartu dute parte eta, gainera, kantu baten musika eta beste kantu baten letra ere amarenak direla azaldu digu panderojole eibartarrak. Diskoa 10 eurotan ipini dute salgai eta Eibarren Sagarbitza tabernan, Arrate Irratian edo Kantabria jatetxean erosi daitezke. Eibartik kanpora ere, beste herri batzuetan ipini dute saltzen.



Ikusentzunezkoen Asteari agur

Miren Amurizaren bertsoekin agurtu zuten Arrate Kultur Elkartearen Ikusentzunezkoen Astea aurreko barixakuan. Martitzenetik egun horretara arte gauero eskaini zuten diaporama emanaldia, ohikoa den moduan San Andres elizako klaustroan. Aurtengo egitarauaren barruan Pello Osororen, Biharrion elkartearen, Jose Luis Irigoien eta Miren Amurizaren lanak ikusteko aukera izan da eta, horrekin batera, Irigoienek diaporamak nola egiten diren azaltzeko tailerra ere antolatu dute.



Agur San Kristobalگو jaiet

Barixakuko txupinazoarekin hasi eta domekara bitartean ederto ospatu zituzten jaiak San Kristobal auzoan. Jaietako lehen gauean heavy metal musika izan zen protagonista Iron What eta exKISSitok taldeen kontzertuei esker. Zapatu bete-betea agurtzeko Elsa Baeza eta Drindots taldearen emanaldiak izan zituzten eta domekan, berriz, Marmitako Txapelketarekin batera umeendako jarduerak eta DJ Arabaren musikak bete zuten eguna. Bestalde, jaien amaieran egindako zozketan, zenbaki sariduna 1.866 izan da (1. erretserba 1.409 eta 2. erretserba 425).



Lambretta motorren kontzentrazioa

Eibarko Lambretta Klubaren eskutik aurreko asteburuan egindako XIII. Lambretta kontzentrazioaren harira 50 bat motor ezberdin ikusteko aukera izan zen Untzagan zapatu goizean, eguerdian herrian zehar kalejira egin eta San Kristobal auzora igo aurretik. Untzagan erakutsi zituzten motorrei egindako argazkiekin osatu dugun bilduma etakitto.eus gure webgunean, mediatekan ikus dezakezue.

Patrulla Canina bertan behera

Azken orduko aldatetak tartean, biharko aurreikusita zegoen "Patrulla Canina"-ko pertsonaien bisita bertan behera geratu dela eman dute aditzera El Corte Ingles-etik, baina, horren ordez, "Skratx" umeendako antzezlan eskainiko dute 18:00etan, Ameztu Producciones-en eskutik (3. solairuko terrazan).



Musika Bandaren gaueko emanaldia

Gaur 23:00etan denboraldiko azken kontzertua emango du Eibarko Cielito Musika Bandak Toribio Etxebarria kalean, pelikuletako soinu-banda ezagunetatik aukeratu dituzten kantuekin: "La madrugada" (A. Moreno), "Nuovo Cinema Paradiso" (E. Morricone), "James Bond 007" (J. de Meij), "Avatar" (J. Horner) eta "Piratas del Caribe" (H. Zimmer). Oporren ostean, irailak 18an ekingo diote ikasturteari Coliseoan.



Udazkena Coliseoan

Udako oporrak amaituta, Coliseo antzokiak ikasturte berrian hartuko dituen hainbat ekitaldi lotuta daude. Irailean, besteak beste, Glu-Glu konpainiak "Caperucita Feroz" antzezlan taularatuko du (23an, 20:30ean) eta Boliviako Ensamble Moxos-ek, berriz, "Amazonia" (29an, 20:30ean). Eta irailaren 30ean, berriz, "Esencia flamenca" musika eta dantza ikuskizuna eskainiko dute Castro Romero Flamenco eta Suite Española-k.



"Gotas" Iratxe Gimenez eibartarraren lehen liburua plataforma digitaletan eta Eibarko liburudenda eta hainbat paperdendetan ere aurki daiteke dagoeneko. 19 ipuin edo kontakizun guztiz desberdinek osatzen dute liburua. Engantxatu egiten duten istoriak dira eta udako atsedenaldietan irakurtzeko ezinhobeak. Iratxek Historia ikasketak egin zituen eta Mutrikuko udaletxean egiten du lan. Askorentzako aurpegi ezaguna izango da, Usartza txistulari taldeko kidea da eta.

IRATXE GIMENEZ (idazlea):

"Eguneroko bizitzan sortzen diren txispenguruko istorioak dira"

- Nola eman zenuen liburua argitaratzeko pausua?


Urte pila bat daramatzat idazten, txikitik, baina dena niretzako gordetzen nuen. Oso jende gutxi ezagutzen zuen nire zaletasuna. Ipuin edo kontakizun batzuk urteak dituzte eta beste batzuk berri-berriak dira. Aukeraketa bat egin nuen eta estatu mailako editorialetara bidaltzen hasi nintzen. Madrilgo batzuk baiezkoa eman zidaten. Kontratu bidali zidaten, baina zenbait gazetan ez nintzen eurekin ados jarri. Kontratu horiek oso zorrotzak izaten dira. Fustrazio handia hartu nuen. Ez nuen amore eman eta azkenean Punto Rojo-rekin autoedizio bitartez argitaratzea erabaki nuen. Autoedizioak baditu alde onak eta txarrak, askeagoa zara zenbait gauza egiteko, esate baterako izenburua aukeratzeko, eta portzentaiak handiagoak dira. Alde txarrei dagokienez, dirua zeure poltsikotik jarri behar duzu, eta niretzako alderik txarrena zuzenketak egiteko ordua izan zen: zuzenketak egin eta egin, ematen zuen ez nuela inoiz amaituko. Argitaletxe normal batekin, aldiz, zuzenketak egin eta kitto, ez zaio buelta gehiagorik ematen. Pozik nago egindakoarekin, baina bertigoa daukadala onartu behar dut.

- Egitura berezia dauka liburuak. Hiru atal nagusitan banatuta dago: "Gotas", "Gotas extrañas" eta "Gotitas", azken hau umeendako bi ipuinekin.

Ez da ohikoa helduentzako eta umeentzako ipuinak liburu batean nahastea, eta nahiz eta jakin oso komertziala ez dela, horrela egitea erabaki dut. Irakurri dutenek esan didate istorioek engantxatu egiten dutela eta beti ateratzen dela pertsonaren alde iluna; ni ezagututa, ez zuten horrelakorik espero. Istorioek nolabaiteko eragina sortzen dute. Lankideek desberdin begiratzen naute (jajaja). Umeendako ipuinak kenduta, asko ateratzen da alde ilun hori. Lehenengo zatian, "Gotas"en, 12 kontakizun desberdin daude, "Gotas Extrañas"en beldurrezko bost ipuin sartu ditut eta, azkenik, "Gotitas"en haurrendako bi ipuin.

- Zeintzuk dira zure inspirazio iturriak?

Eguneroko bizitzan sortzen diren txispenguruan istorioak montatzen ditut. Sentsibilitate handiko pertsona naiz, eta imaginazioak eta, nire lagunek esaten duten bezala, buruan ditudan "ideia arraroek" ere lagundu dute istorio hauek idazterakoan. Denetariko ipuinak daude. Ipuin historiko bat dago, ipuin "txoni" bat ere badago, txoniek hitz egiten duten moduan idatzitakoa...



Jendearekin nahiko analitikoak naiz baina liburu honetan dena da fikzioa. Oso pertsonala den poema bat, adibidez, ez nintzen argitaratzera ausartuko. Beldurrezko istorioak asko gustatzen zaizkit eta, kuriosoa baldin bada ere, askotan gero beldurtuta egoten naiz sortu dudana beldurrezko istorio batekin.

- Usartza Txistulati taldekoa zara. Txistua ere txikitatik datorkizun zaletasuna da?

Ez, txistuarekin berandu hasi nintzen. Txistuak lagundu egin dit liburu hau idazteko erabakia hartzen. Pena handia nuen ez nuelako musika ikasi. Karrera amaitu nuen hasi nintzen musika ikasten eta 26 urterekin hartu nuen txistua. Dena ona izan da txistulari taldean: lagundu eta animatu egin naute, nik ez dudalako, inola ere, berriak daukaten maila. Txistuak hainbeste gauza on ekarri dizkidala ikusita, idazketa-rekin gauza bera egin behar nuela pentsatu nuen. "Betidanik idazten dut, demaseko lotsa ematen dit, baina pauso hori eman behar dut", pentsatu nuen, eta horrela egin dut. Musikak eman didan erdia ematen badi, merezi izango du. Jendea asko poztu da liburua atera dudanean eta horrek energia pila bat eta poz handia eman dit.

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com





ERMUKO Santixauak gerturutzen

Santixauak gainean ditugu eta asteburu honetarako ekitaldi mordo antolatuta dira Ermuan. Besteak beste, bihar goizean, zapatua, "URKO 69etan ezetz! VIII. igoera kontrolatua" eta Arku-tiro proba izango dira. 14:00etan, Martxoak 8 plazan, Paace elkarteak antolatutako emakumeen arteko bazkaria izango da Jaapo Lyguy danborren taldearekin. 19:00etan Orbe Kardenalaren plazan, kontzertua emango du Senegaleko Afrikan Bakh Yay taldeak, PAACE elkarteak antolatuta, eta gaueko 11:30ean Efecto Pasillo taldearen kontzertua hartuko du San Pelaio plazak. Domekan Mendi-bizikletako XXI. herri martxari ekingo diote 9:30ean, eta 11:00etan Santixauak Txirridulari Proba egingo da. Egitarau osoa ikusteko: <http://www.ermua.es>



Izaro Andres-en kontzertua SORALUZEN


Izaro Andres, ETB-ko "Izarrak kalean" saioan lehiatu zen musikari mallabiarrak kontzertua emango du domeka eguerdian Soraluzen, 13:00etik aurrera Gaztelupeko terrazan.



Zingaros-en emanaldia ELGOIBARREN

Martitzenean, 20:00etatik aurrera Zingaros hirukotearen kontzertua hartuko du Elgoibarko Kultur Etxeko sotoak. 2004ko udan sortutako taldeak Ekialdeko Europako ijitoen doinu tradizionalak eta tangoa nahastu ditu, estilo berezia sortuta.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Ines Guede Gomez. 97 urte. 2016-VII-6.
- Milagros Araujo Fernandez. 60 urte. 2016-VII-7.
- Maria Andreu Ibarbia. 92 urte. 2016-VII-7.
- Andres Basurto Bolunburu. 91 urte. 2016-VII-10.
- Pedro M^a Etxeberria Sarasketa. 73 urte. 2016-VII-12.

jaiotakoak

- Lucas Hernandez Corchero. 2016-VI-29.
- Yara Roman Fernandez. 2016-VI-30.
- Saioa Guerrero Garaizabal. 2016-VII-1.
- Nassima Doudouh. 2016-VII-2.
- Elena Zubiaur de los Ojos. 2016-VII-3.
- Arhane Isasmendi Mateos. 2016-VII-5.
- Ayoub Aoulad Sellam El Mohammadi. 2016-VII-6.
- Lucia Hedrera Martinez. 2016-VII-8.
- Malen Mardaras Charola. 2016-VII-10.
- Markel Arrieta Cordon. 2016-VII-11.

farmaziak

- Barixakua 15**
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 16**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Domeka 17**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 18**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 19**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguaztena 20**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguena 21**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 22**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

8	3	7	5	9	1	2	4	6
4	5	2	8	6	3	1	7	9
1	6	9	4	7	2	8	3	5
7	1	4	9	5	6	3	8	2
6	2	5	3	8	4	9	1	7
9	8	3	1	2	7	5	6	4
2	4	1	6	3	9	7	5	8
3	7	8	2	4	5	6	9	1
5	9	6	7	1	8	4	2	3

SUDOKUA

6		7				2		
		5		7				6
	4		3	5		7		
			9	4				3
	9						7	
4				1	7			
		1		2	4		5	
7				9		1		
		4				3		9

Barixakua 15**KONTZERTUA**

23:00. Eibarko Cielito Musika Bandaren gaueko kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

Zapatua 16**UMEENDAKO IKUSKIZUNA**

18:00. "Skratx" umeendako ikuskizuna, Ameztu Producciones-en eskutik. Doan. El Corte Ingleseko 3. solairuko terrazan.

KONTZERTUA

20:00. Allarizeko La Union musika bandaren kontzertua. Untzagan.

Eguaztena 20**FACTORING**

10:00/20:00. Factoring udako merkealdien azoka. Toribio Etxebarria kalean.

BATZAR IREKIA

19:00. EH Bilduren udal taldeak deituta. Gaiak: Espainiako hauteskudeen balorazioa, Hauteskunde autonomikoak: hautagaien aukeraketa proposamena eta Eibarko gaiak. Portalean.

Eguena 21**FACTORING**

10:00/20:00. Factoring udako merkealdien azoka. Toribio Etxebarria kalean.

ODOL-ATERATZEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

Martitzena 19**ARTILE-BILKETA**

Artile-bilketa egingo du Debemenek. Interesa dutenek artilea bezperan, arratsaldean laga beharko dute. Garbigunearen sarreran (Azitaingo industrialdean).

**Lehiaketak****Indalezio Ojanguren XXIX. Argazki Lehiaketa**

– Dei-egilea: Eibarko Udala, Eibarko Klub Deportiboaren laguntzarekin.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 6ra arte, Portalean eta www.eibar.eus-en. Gehienez 3 argazki zuri-beltzean eta 3 koloretan (inoiz saritu gabeak).

“Asier Errasti” Eibarko 17. Film Laburren Jaialdia

– Dei-egilea: Eibarko Udala eta Plano Corto kultur elkarte.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Irailaren 20ra arte, www.planocorto.es eta www.eibar.eus-en. Lehiaketan sail bi izango dira: fikzioa eta animazioa (DVD-an).



Allarizeko La Unión musika bandak kontzertua eskainiko du bihar Untzagan, arratsaldeko 20:00etan hasita.



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



Azido hialuronikoko ile-tratamendu berriak

Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, IBAI, domekan lau urte potolo egin dozuz-eta. Ondo pasa zure egunian! Askoi maite zaittugu.




Zorionak, ZOIHARTZE, gaur zortzi urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GAIKKA Aristondo, hillaen 12xan zortzi urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat amatxo eta aitatxoren partez.



Zorionak, NAIA, aurreko martitzenian lau urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, AMETS, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Musu potolo bat aitta, ama eta, batez be, "Cosita"-ren partez.



Zorionak, ENEKO, eguaztenian sei urte egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat etxekuen eta, batez be, Aitorren partez.



Zorionak, MAIALEN, martitzenian 10 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, MALEN Mardaras Charola, hillaen 10etik gure artian zagoz-eta. Etxeko guztion partez.



Zorionak, OLATZ, martitzenian urtiak egin zenduaz-eta. 10 musu potolo etxekuen partez!



Zorionak, JARE!, gaur urtetxua betetzen dozulako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON Badiola Albizu, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Miren eta famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO, zure lehelengoko urtebetetzian. Musu haundi bat famelixakuen partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

16an: 17:00, 19:45, 22:30
17an: 17:00, 20:00
18an: 20:30

"Money Monster"

Zuzendaria: Jodie Foster



(2 ARETOAN)

16an: 17:00, 19:45, 22:30
17an: 17:00, 20:00
18an: 20:30

"Premonición"

Zuzendaria: Afonso Poyart



(ANTZOKIAN)

16an: 17:00, 19:45, 22:30
17an: 17:00, 20:00
18an: 20:30

"Ice Age. El gran cataclismo"

Zuzendaria: Mike Thurmeier



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Urkizu inguruan. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Igogailua. Eraikin berria eta eguzkitsua. Tel. 667-376212.
– Bastidan etxea salgai. 3 logela, jangela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. Berriztuta. Eguzkitsua eta dena kanpora begira. Aukera ona. Tel. 617-323246. Itziar.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 660-047305.
– Pisua alokagai Ermuan, Iparragirre kalean. Berriztuta. Tel. 615-706548.
– Pisua behar da alokairuan. 500 eurotik behera ordaintzeko prest. Tel. 628-235319.
– Pisua alokagai Jardinetan kalean. 3 logela eta terraza handia. Kafetakia eta igogailuarekin. 480 euro + komunitate gastuak. Tel. 669-682148. Asier.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 602-120839.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren, 450/500 euro bitartean. Tel. 632-569245.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-330218.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Lan-kontratua dut. Tel. 666-060799 eta 666-988946. Naiara.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai edo alokagai jubilaioagatik. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 631-064707.
– Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta garbiketara lan egiteko. Tel. 600-218753.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Erreferentziak. Tel. 631-990581.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-308608.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Interna. Tel. 603-505042. Mariela.
– Mutila eskaintzen da edozein lanerako: nagusiak zaindu, tabernari jardun, frutadendan... Orduka eta baita gauz ere. Tel. 612-481470.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 678-112785.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-418130.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 632-911709.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-986771.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.
– Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 647-615265.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 648-039187.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 602-057185.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Interna. Tel. 610-934835. Odali Fernanda.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 602-123860.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. Tel. 673-538021.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrietan lan egiteko eta garbiketara egiteko. Esperientzia. Tel. 632-932444.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrietan lan egiteko eta garbiketara egiteko. Esperientzia. Tel. 632-131800.
– Neska eskaintzen da pegorak edo tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-790555.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-743240.
– Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-562380.
– Administrazio-ikasketak eta lan esperientzia duen neska eskaintzen da alor horietan lan egiteko. Baita umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko ere. Tel. 632-480108.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-400915.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Goizez edo gauz. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 655-677035.
– Neska eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldean eta gauz nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 602-141712.
– Neska eskaintzen da goizez garbiketara egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gauz ere). Orduka. Tel. 628-014327.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 608-037575.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-796239.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Prestasun osoa. Tel. 631-343232.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-748531.

– Mutila eskaintzen da arotz edo margolari moduan eta etxeko lanak egiteko. Tel. 609-154358.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-699668.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 628-738472.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 655-677035.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan eta gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 638-544358.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 722-396233.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-811267.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-245326.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko etab. Tel. 692-345215.

4.2. Langile bila

– Euskalduna behar da goizero hiru orduz umeak eskolara eraman eta etxeko lanetarako. Tel. 662-069109.
– Ilea zaintze profesionala behar da Eibarren. Tel. 619-928881.
– Kamarera behar da Eibarren. Tel. 665-308025 eta 674-543564.
– Psikomotritzitate edo fisioterapia ezagutzak dituen pertsona behar da ume batekin lan egiteko. Tel. 615737483. idatzihona@gmail.com
– Esperientziadun pertsona behar da bidaiaria agentzian batean lan egiteko. Bidali curriculum-a: admin@viatgespoblenou.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bigarren eskuko, DBH 3. mailako liburuak saltzen ditut. DBH 4. mailako liburuak erosiko nituzke. Tel. 653-705096.
– HDMI DVD MP64 bat saltzen dut, DUB-T COMBOarekin. Berria. 12 euro. Tel. 943-120030.
– Binilozko LP-ak eta diskoak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.3. Galdututa/Aurkituta

– Audifonua galdu nuen ekainaren 21ean edo 22an. Norbaitek topatzen badu, Udaltzaingoa laga edo deitu. Tel. 943-701614 eta 656-758793.

6.4. Bestelakoak

– Alfonbra (zabalera: 1'99 eta luzera: 2'93) eta josteko makina (Alfamatic 109 modelo) salgai. la berriak. Tel. 943-702167.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdututa/Aurkituta
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Aurkitu Hyundairen GO! Serie Berezia berria eta eraman 5.000€-ko gutxieneko deskontu bermatuarekin. Eta gozatu zure Hyundaiaren topera!



ORARSO CAR HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
ELGOIBAR Olaso Polig., 17 943 74 14 80



Finantzatutako autoentzat. i20 GO! Serie Berezia: CO₂ Emisioak (gr/km): 99-112. Kontsumo mistoa (l/100 km): 3,9-4,8.
 i30 5 ate GO!: CO₂ Emisioak (gr/km): 99-135. Kontsumo mistoa (l/100 km): 3,8-5,8.

PVP i20 GO! 1.2MPI (85CV) GO (12.115€). PVP i30 5 ate GO! 1.4 MPI (100CV) BD GO! (14.430€). Penintsulan eta Balearetan gomendatutako PVP-a, BEZ, garraioa, Matriculazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza eta Gobernuaren PIVE Plana (Gobernuaren Plan horretako baldintzen beteazterari lotuta) barne. Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 10.000€-ko (i20 GO! eta i30 GO!-en kasuan) gutxieneko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziak. 2016/08/31ra arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modelook: i20 GO PLUS! eta i30 GO PLUS! Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioi lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduen baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.

Arrate bezperako

BERTSO-AFARIA



ANDONI EGAÑA

IRAILAK 7
 ASTEAZKENA



AGIN LABURU



SEBASTIAN LIZASO

KANTABRIA
 21:00



MAIALEN LUJANBIO



**SARRERAK
 SALGAI**

Kultu
 Sagarbitza
 Kantabria



Baldintza bereziak.

EGAZELAI,
Babes Ofizialeko etxebizitzak
%90ARTEKO FINANTZIAZIOA

Baldintza ezinhobeak
etxebizitzarako maileguan.

Informazio gehiago Errebal 9an, EIBAR.
Telefonoa: 943 20 39 40